

DEIALDI-AHALMENA BERRESKURATU DU BBK MENDI FILM BILBAO BIZKAIA JAIALDIAK

Aitor Elduasien
Mendi Filmeko komunikazio arduraduna



Hasiara ekitaldia

BBK Mendi Film Bilbaio Bizkaiaren 15. edizioak 9.000 ikusle bildu zituen joan den urteko abenduaren 9tik 18ra. Jaialdiak 59 film proiektatu zituen guztira, 14 herrialde ordezkatzuz. Mundu mailako 16 estreinaldi izan ziren, 22 Estatu mailakoak. Horretaz gain, International Alliance for Mountain Film elkargoaren sari nagusia eman zitzaion Michael Dillon zinegile australiarrari, eta WOP Mendi Film Saria, berriz,

Michael Dillon



Eduardo Martínez de Pisón geografo, idazle eta mendizale espainiarrari.

Ikusleen eta babesleen bultzadarekin pandemia urteak ondo gainditu eta deialdi-ahalmena berreskuratzea lortu du jaialdiak. 2020an 9683ko okupazioa izan zuen (5.500 ikusle), 2021ean 9655ekoa (7.500 ikusle) eta 2022an, 9674koa (2018 eta 2019koen gainetik).

Hanna Taylor eta Quinn Brett





Sartuak

Gainera, Bilbo nazioarteko komunitatearen topagunea izan zen mendiko kultura ri dagokionez. Horren lekuko dira Euskadiko eta Estatuako ordezkari ez gain, Frantziatik, Belgikatik, Erresuma Batutik, Esloveniatik, Poloniatik, Australiatik, Ruandatik eta Estatu Batuetatik etorritako 50 gonbidatu baino gehiago.

QUINN BRETT, HENNA TAYLOR, SEB MONTAZ, IGNASI LÓPEZ, JULEN ZUBIETE...

An *Accidental Life* pelikularak irabazi zuen BBK Mendi Film Bilbao Bizkaiko Sari Nagusia. Henna Taylorrek zuzendutako lana da, eta Quinn Brett eskalatzaileratu protagonista eta ardatz. Quinn bera eta Henna Taylor izan ziren Bilbon pelikula aurkezten, eta epaimahaikideak ez ezik, Mendi Filmeko ikusleak ere politzikoratu zituen pelikularako istorioak.

Ez ditugu aipatu gabe utzi nahi bina sari lortu zituzten lanak:

De l'ombre à la lumière-From shade to light filma, Seb Montaz zuzendari frantziarrak Zuzendari Onenaren Saria eta Mendiko Film Onenaren Saria jaso zituen lana; Kilian Jorneten *Summits of my Life* seriea zuzenduz, edota *The Flying Frenchies* taldearen pelikulara gure artean aski ezaguna egin den Seb Montaz.

Ignasi Lópezek ere Egoland stop-motion animaziozko pelikularaekin Ikusleen Saria eta Epaimahaikideen Aipamen Berezia jaso zituen. Aurreko edizioetan aurkeztu zituen bi pelikularak ere sartuak izan ziren (*Via Crucis* eta *El Gran Hito*), eta esan genezake zuzendari kataluniarak bere lekua eta jarraitzaile fidelek dituela Mendifilmen ikusleen artean.

Azkenik, *Agur Artzai* lanak ETB Euskarazko Film Onenaren Saria eta ECPV zine eskolako gazteek emandako Gazte Saria film labor onenaren sariak jaso zituen; Julen Zubiete zuzendari orozkoarrek estreinaldi gozoa izan zuen "etxean", Gorbeia magalean zenbait urtez lanean jardun duen Jose Erenori buruzko lanari esker.

Beste zuzendari euskaldun bat ere ageri da palmaresean: Aner Etxebarria getxoztarra hain zuzen, *Joy* pelikularaekin Film Labor Onenaren Saria jasoz. Protagonista, Joyleen Tugume ugandarra, harekin izan zen Bilbon pelikularen nazioarteko estreinaldian, eta jaialdiko izarretako bat izan zen ezbairik gabe.

BBK MENDI FILM BILBAO-BIZKAIA 15. EDIZIOKO SARIAK

- **Sari Nagusia:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 6.000 euro | *AN ACCIDENTAL LIFE*
- **Zuzendari Onena:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 3.000 euro | Sébastien Montaz-Rosset eta Davina Beyloos Montaz-Rosset | *DE L'OMBRE À LA LUMIÈRE-FROM SHADE TO LIGHT*
- **Gidoi Onena:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 2.000 euro | *NOTALONE*
- **Argazkilaritza Onena:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 2.000 euro | *EPHEMERAL*
- **Epaimahaiaren Saria:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 2.000 euro | *THIS IS BETH*
- **ETB Saria Euskarazko Film Onenari:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 2.000 euro | *AGUR ARTZAI*
- **Soinu-Banda Original Onenaren Saria:** "Ikalaparta" garaikurra eta 1.200 euro | *CREATION THEORY* | Konpositoreak: Griff Washburn & Goth Babe
- **Mendiko Film Onena:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 1.200 euro | *DEL'OMBRE À LA LUMIÈRE-FROM SHADE TO LIGHT*
- **Eskaladako Film Onena:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 1.200 euro | *ALPINE TRIOLOGY (DOGGYSTYLE)*
- **Kultura eta Natura Film Onena:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 1.200 euro | *PASANG-IN THE SHADOW OF EVEREST*
- **Kirol eta Abentura Film Onena:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 1.200 euro | *TÓFOL CAS TANYER, EL CORREDOR INFINIT*
- **Film Labor Onena:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 1.000 euro | *JOY*
- **Ikusleen saria:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 1.000 euro | *EGOLAND*
 - **Gazte Saria Film Labor Onenari:** "Eguzkilorre" garaikurra eta 200 euro | *AGUR ARTZAI*
 - **Epaimahaiaren Aipamen Berezia** | *EGOLAND*
 - **Epaimahaiaren Aipamen Berezia** | *SAVAGE WATERS*

MENDI TOUR 2023

Aipatutako pelikula horiek guztiak ikusi ahal izango dira 2023ko Mendi Tourrean, baita laszko jaialdian nabarmendutako beste zenbait ere: *Everest: sea to summit* Michael Dillonen filma, Alastair Lee-ren *Ephemeral*, Andrezj Bargiel alpinista-eskiatzailea protagonista gisa ageri den *Doo sar*, Beth Roden eskalatzaileratu protagonista duen *This is Beth*, *Tófol Castanyer, el corredor infinit...* laz 46 herritan eskaini ziren Mendi Tour emanaldiak, mendiko zinemako 80 saio eskaini ziren, eta 10.000 ikusletik gora bildu ziren haietara.

BBK Mendi Film Bilbao Bizkaia jaialdiaren 16. edizioa abenduaren 8tik 17ra egingo da. Bitartean, urte guztian zehar izango da Mendi Tourraz gozatzeko aukera. Mendizaleek emandako babesak gure bidean berretsi egin gaitu. Zorionekoak gu.